

EZ OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023ICGO0016

Eguna: 2023-12-28

Ordua: 16:15 – 16:20

Tokia: alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2023ko abenduaren 20ko akta onartzea.
- 2.- Mendiandi-Aranibarreko eremuan DBHko ikastetxe bat eraikitzeko plan bereziari hasierako onarpena ematea.
- 3.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2023ko abenduaren 20ko akta onartzea.

Patxi zinegotzia abstenitu egin da aurreko bilera egon ez zelako, gainerakoek berriz aldez bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- Mendiandi-Aranibarreko eremuan DBHko ikastetxe bat eraikitzeko plan bereziari hasierako onarpena ematea.

Alkateak azaldu ditu plan berezia orain idaztearen arrazoiak eta dokumentu horren nondik norakoak, eta aurkeztu du hirigintza, etxebizitza, ingurumen eta mugikortasuneko batzorde informatiboaren irizpen hau, onartua izan dadin:

***Lehenengoa.-** Astigarragan eskola-ekipamendu berri bat eraikitzeko Plan Bereziari hasierako onospena ematea, udal-arkitektoak 2023ko abenduaren 22ko txostenean ezarritakoa eta, hala badagokio, ingurumen-txosten estrategikoak ezarritako zehaztapenak betetzearen baldintzapean.*

***Bigarrena.-** Dokumentua jendaurrean jartzea 20 egunez, eta erabakia GAOn eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Hirugarrena.- *Ebazpen hau eta Plan Bereziaren dokumentua honako administrazio eta erakunde hauei bidaltzea, dagokien txostena egin dezaten:*

- Uraren Euskal Agentzia
- Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Laugarrena.- *Ingurumen-organoari eskatzea (Eusko ingurumen-txosten estrategikoa egin dezala, eta Plan Berezia eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidal ditzala.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3.- Informazio, galdera eta eskariak

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko abenduaren 28an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria